

HIRI HONDAKIN SOLIDOEN KUDEAKETA ZERBITZUA FINANTZATZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA. 2015

APLIKAZIO EREMUA

1. *artikulua.* Ordenantza hau, Iruñerriko Mankomunitatean integraturik dauden Udalen lurralde barrutietan aplikagarria izanen da, baldin eta zerbitzua egiazki burutzen bada.

Estatutuen 9. artikulua araberakoan, Mankomunitateak bere zerbitzuak udal eremuaren zati batean -Kontzeju batean edo zenbaitetan- ematen ditueneko kasuetan, honako Ordenantza zerbitzu-prestazioa egiten deneko Kontzejuen eremuetan soilik izanen da aplikagarria.

EMANDAKO ZERBITZUAK

2. *artikulua.* Ematen diren zerbitzuak, Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzu eta jardueren erabilpena egin edo egin ahal izatearen kariaz zehazten dira. Direlako zerbitzu eta jarduerak, dagozkien diru-sariak sorrarazten dituztenak, ondoan zerrendatzen diren hauek dira:

1.-Hiri hondakin solidoen nahitaezko harrera, bilketa, garraioa eta ondoko balioztapen edo hustuketa zerbitzuen eskuragarritasuna edota erabilpena, Hiri Hondakinei buruzko Legearen eta Iruñerriko Mankomunitatearen H.H.S.-en Kudeaketa Arautzeiko Ordenantzaren kariaz sortzen direnak.

2.- Ondoko zerbitzuen prestazioa:

- a) HH-en balioztapen eta ezabapen instalakuntzetan hondakinen harrera.
- b) Hildako etxeko animaliak jasotzea, garraiatzea eta deuseztatzea.

ORDAINTZERA BEHARTUAK

3. *artikulua.* 1. 2. artikulua 1 atalean definitutako zerbitzuei dagozkien diru-sariak ordaintzera beharturik daude pertsona fisiko zein juridikoak, hala nola egoneko herentziak, ondasun elkargoak eta beste entitateak, izaera juridikoa izan gaberik ere, baldin eta, ezarpengarri diren unitate ekonomiko edo ondare berezitua osatzen badute, edozein tituluren kariaz etxebizitza, lokal, establezimendu edo zentrorik erabiltzen badute, eta haien onura edo mesederako zerbitzua modu orokor eta beharrezkoan ematen edo prestatzen bada. Onuraduna ezaguna ez den kasuetan, direlako higiezin jabeak izanen dira ordaintzera behartuak, haiek kuotak dagozkien onuradunengana berrezarri ahal dituztelarik.

2. 2.2 artikuluan ezarritako prestazioak direlakoetan, ordaintzera behartuak izanen dira honakoak:

2.2.a) artikulua arabera emaniko zerbitzuak. Hondakinak Tratamendu Zentroan jasotzea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

2.2.b) artikulua arabera emaniko zerbitzuak. Zerbitzua ematea eskatzen dutenak. Ez dira zerbitzu honen ordaintzera beharturik egonen Mankomunitatean integratuta dauden entitate lokalak.

KUOTAREN OINARRIA

4. *artikulua.* 1. 2. artikulua 1. atalean aipaturiko zerbitzuaren kasurako, kuota zehazten deneko oinarria, era orokor batez, I. Eranskinean ageri diren erabilpenaren araberako tarifa multzoetako ondasun higiezin katastro-balioen batura izanen da, Nafarroako Hiri Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuen arabera.

Ondasun higiezin bat delako Erregistroan balioztaturik ez dagoen kasuan, 6.1 b) artikuluan ezartzen denari jarraituko zaio.

"Hondakin sortzaile handien" kasuan, halakotzat hartuko baitira bi edukiontzi edo gehiago behar izaten dituzten ordaintzaileak, oinarria edukiontzien edukiera erabilgarriari eta bilketa maiztasunari dagokiona atxikiko zaie.

Bilketa konpaktazio gabeko kaxa bitartez egiten den kasuetan oinarria biltzeko diren kaxen kopuruarekin bat etorriko da.

Bilketa pneumatikoaren arloan merkataritza-hondakinak uzteko txartelaren kopia bat eskatzen bada txartela galdu delako, oinarria izango da eskatutako txartelaren ale bakoitzeko.

2. 2. artikulua 2,a) atalean aipaturiko zerbitzuaren kasurako, oinarria isurkinaren pisua izanen da.

3. 2. artikulua 2,b) atalean aipaturiko zerbitzuaren kasurako, oinarria hildako animalia ale bezainbesteko izanen da.

TARIFAK

5. *artikulua.* 1. 2.1 artikuluan bildua den zerbitzuaren kasuan, eta erabilerari dagokion koefizienteaz zuzenduriko bere oinarriaren gainean, I. Eranskinean erabilera bakoitzarentzat ezarri den tarifa aldakorra aplikatuko da, kuotaren zati aldakorra izanik. Hau ez zaie aplikagarri "hondakin sortzaile handiei".

2. 2.2 artikuluan aipatzen diren zerbitzuen kasuan oinarriari Eranskineko H eta I ataletan ageri diren tarifak aplikatuko zaizkie.

KUOTA

6. *artikulua.* 1.a) 2.1 artikuluan aurreikusten den zerbitzurako aterako den kuota osoa, zati aldakorra eta I. Eranskinean ageri den kuota finkoaren batura izanen da. Ezin izanen da ezin kasutan ere kuota osoa erabilpen bakoitzeko kuotaren zenbatekoa baino handiagoa izan.

"Hondakin sortzaile handiek" kuota bakarra ordainduko dute, zenbatekoak I. Eranskinean agertzen baitira.

b) Zergapeko hiri-unitateei Hiriko Lurralde Kontribuzioaren ondorioetarako oinarri zergagarririk atxiki ez zaien kasuan, aterako den kuota, tarifa aldaezina eta Eranskinean ageri den tarifa aldakorraren batura izanen da, ezarritako erabilpenen arabera.

2. 2.2 artikuluan bilduak diren zerbitzuendako kuota aurreko artikuluan aipatzen diren tarifak aplikatzearen kariaz sortzen dena izanen da.

7. *artikulua.* Kasu bakoitzean aterako den kuotari legeek une bakoitzean finkatzen dituzten zeharkako zergak aplikatuko zaizkie, haiek ezartzen dituzten era eta baldintzetan.

SORTZAPENA

8. *artikula*. 1. 2.1) artikuluan aipatzen diren zerbitzuendako ezarriko diru-sariak lauhileko natural bakoitzeko lehenengo egunean sortuko dira.

Zerbitzua jasotzen hasten diren erabiltzaileentzat, zerbitzua jasotzen hasten direneko egunean gertatuko da sortzapena, nolaz eta ordaintzera beharturik dagoenak bakarrik fakturazio-epaia bukatzen den arteko egunei dagokienez ordain dezan.

Bilketa pneumatikoaren arloan merkataritza-hondakinak uzteko txartelaren kopia bat eskatzen bada txartela galdu delako, prezioak eskaeraren unean sortuko dira.

2. Gainerako beste zerbitzu guztiengatik ezartzen diren diru-sariak, interesdunak eskaera egiten duen momentuan edo zerbitzuaren prestazioa burutzen denean (2.2 b art.).

ORDAINERAZPENA

9. *artikula*. Ordenantza honen bidez erregulatzen diren diru-sariak hilabeteko edo lauhilabeteko alditan ordainaraziko dira. Bilketa pneumatikoaren arloan merkataritza-hondakinak uzteko txartelaren kopia bat eskatzen bada txartela galdu delako, prezioak sortzen diren unean ordainaraziko dira.

DIRU-BILKETA

10. *artikula*. 1. 2.1 artikuluan aurreikusten diren zerbitzuak emateaz sortzen diren zorrak "jakinerazpen gabekotzat" kontsideratuak izanen dira, zerga-ordaintzaile errolda batetatik sortuak direlako.

2.- Ordenantza honetan artikuluan aurreikusten diren diru-sariekin sortzen dituzten zorrak, behin eta 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ordainaraziak, ordaindu behar direneko lauhileko naturaleko lehen hilabetearen lehenbiziko egunean jakinarazitzat emanen dira. Data horretatik aurrera hilabeteko epea kontatzen hasiko da, ordainketa egiteko.

3.- Ezarritako epean ordainduak ez diren diru-sariei dagozkien zerbatekoak legezko urteko interes-tasa aplikatuzetik sortzen den kopuruan gehituak izanen dira.

Korrituei dagokien zerbatekoaren sortzapena borondatezko ordainketa epea amaitzen den egunean gertatuko da, eta borondatezko ordainketa epea amaitzen den hilabetearen ondokoaren azken egunetik aitzina ordainaraziko dira.

Berantze-korrituak ez zaizkie aplikatuko beren jarduerak lege-ordenamendu pribatuari egokitu behar duten Administrazio Publiko, Erakunde Autonomo eta zuzenbide publikoko Entitateen zorrorei.

11. *artikula*. Zorren ordainketa ondoko eran bete ahal izanen da:

a) Zorren ordainketa helbideratu duten subjektu pasiboendako, beraiek seinalatutako Banku edo Aurrezki Entitatean eta kontuan zordunketa bidez.

b) Zorren ordainketa helbideratu ez duten subjektu pasiboendako, edota helbideratua izan arren edozein arrazoiengatik zorrak bete gabe geratu diren kasuetan, SCPSAren Bulegoetan.

12. *artikula*. Nahiz eta 8.1 artikuluan ezarritakoa hala izan, eraikina erabiltzearen eskubidea deuseztatzeak sortzapean eskubideak ezabatuko ditu, eta, hala, iraugipen dataz ondorengo egunei dagozkien ordainarazitako eta ordaindutako diruak ordaintzera beharturik dagoenari itzuli beharko zaizkio.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Kuota aldakorra kalkulatzeko 2013ko ekitaldi osorako, katastroko balioetat hartuko dira 2012ko abenduaren 31n indarrean daudenak.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Zerga Erregistroan edo zerbitzuan sartzen diren gehitze berrien kasuan, kuota aldakorra kalkulatzeko oinarritzat hartuko da gehitzea egiten den unean ondasunak duen katastroko balioa.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.

Ordenantza honek 2015eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

I. E R A N S K I N A

I.- HIRI HONDAKIN SOLIDOEN KUDEAKETA ZERBITZUA, NAHITAEZKO HARRERAPEKOA.

A. ERREGIMEN OROKORRA –URTEKO TARIFAK- ZENBATEKOAK EUROTAN

ERABILPENAK	KOEF. ZUZ.	Kuotaren oinarriari aplikatzeko tarifa aldakorra	Kuota finkoa	Kuota maximoa
1	1	%0,081	35,52	102,63

4. Etxebizitzak (*)
96. Estudioa
92. Landetxea(**)

(*) Koeffiziente zuzentzaileak udalerrira aplikatuz (II Eranskina)

(**) Tarifa hori izanen da baldin eta hondakin bilketa egiten bada 300 metroko edo gutxiagoko distantzia batean, jabetza pribatuaren eta publikoaren arteko mugatik.

2	2	%0,158	221,57	732,45
9. Lokal komertzialak, elikadura izan ezik (finantza-entitateak barne)				
3	4,25	%0,158	221,57	1.310,02
9. Elikaduralokalkomertzialak				
30. Kasinoa				
34. Festaaretoa				
43. Jatetxea				
44. Kafetegia, taberna				
42. Egoitza				
55. Ospitalea				
56. Klinikak				
59. Kuartelak				
60. Kartzelak				
4	1	%0,158	221,57	1.310,02
41. Ostatua				
45. Pentsioa				
5	1	%0,158	221,57	2.729,10
10. Industria lokalak				
12. Industria pabiloia				
13. Industria biltegia				
14. Aldatoki eta jantokiak				
61. Tren geltokia				
62. Bodega kooperatiba				
87. Garaje egoitza				
90. Zerbitzuetazioa				
93. Laborategia				
94. Autobusgeltokia				
6	1	%0,122	102,62	913,88
3. Jardueraekonomikorikegiten denekoetxebizitzak				
17. Bulegoak				
7	1	%0,122	41,44	228,18
7. Erabiligabekolokalak				
8	0,25	%0,122	41,44	102,63
18. Bulegopublikoa				
19. Udaletxea				
20. Auzitegia				
27. Liburutegia				
28. Museoa				
29. Kulturetxea				
49. Kulturakoerlijioetxeakedoegune rokoerabilpenekoak				
91. Alderdipolitiko enegoitzak				
9	1	%0,122	174,10	732,45
21. Unibertsitatea				
22. Institutua				
23. Lanbideeskola				
24. O.H.O. eskola				
25. Kolegioikastetxea				
26. Hartzaindegia				
31. Antzokia				
32. Zinemategia				
33. Auditorioa				
35. Zezen plaza				
36. Estadioak				
37. Polikiroldegiak				
53. Babesetxea				
46. Elkarreak				
54. Seroretxeak				

57. Anbulatorioa
58. Sorostokia

B. DIRU-BEHAR HANDIKO EGOERAN DAUDEN ZERBITZU-ERABILTZAILLEENDAKO KUOTA BEREZIA

Ordenantza honetan arautzen den etxebizitza erabilerari aplika dakioken prezioari dagokion kuota osoa era orokorrean aplikagarria den kuotaren %10 aplikatuz sortzen den kantitatea bezainbestekoa izanen da, kasu hauetan:

- Ordaintzailea Gizarte Segurantzaren pentsio baten onuraduna denean, edota Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo Gizarte Segurantzak diru-behar handiko egoeratzat jotako batean egoteagatik onetsitako prestazio baten onuraduna denean, zenbatekoa Efektu Anitzetarako Errenta-Adierazle Publikoa, indarreko EAEAPa, bider 1,25 ateratzen den kopurua gainditzen ez duela, edota ezkontide edo gisa bereko bizikidea duenean 1,50 aldiz delako EAEAPa, bion diru sarrerak baturik, gainditzen ez duela. Ezkontidea edo bizikidetzaren harreman analogoko pertsona ez den beste ezein familia zamarik izanez gero (ahaidetasun edo odolkidetasun bigarren gradu arteko senitartekoak). Aipatutako diru-muga horiei familia unitateko pertsona bakoitzagatik delako EAEAPa 0,26 aldiz gehituko zaie.
- Ordaintzaileak ez duenean diru-sarrera ekonomikorik eta gizarte zerbitzuek justifikatu dituztenean premia ekonomikoko bereziko egoeraren arrazoiak.
- Ordaintzailea sartuta dagoenean administrazio desberdinek **sustatutako** enplegu sozial babestuko edo gizarteratzeko eta laneratzeko programetan.

Ezin izanen dute tarifa honetaz baliatu, aurreko baldintzetako bat bete izanik ere, urteko kopurua EAEAPa bider 1,25 baino handiagoa batzen duten beste diru-sarrera gehigarriak jasotzen dituztenek, eskatzailearen eskutik zein etxebizitza berean bizi direnen eskutik, familia unitatez hartuta eskatzailearekiko odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren gradua arte. **Halaber, diru sarreraren eta ondasunen aurretzako baloraziorik ez bada egin pentsioa edo diru laguntza eman baino lehen, eskatzailearen ondasun higigarrien eta higiezin batura ez da izango 120/1999 Foru Dekretuak, apirilaren 19koak, oinarritzko errenta arautzen duenak, ezartzen dituen zenbatekoak baino handiagoa.**

Eskatzaileek ondokoak aurkeztu beharko dituzte:

- Eskaera.
- Eskatzailearen eta bizikideen ondasunak eta diru-sarrerak egiaztatzen dituzten dokumentuak, **aginduzkoa den kasuetan**, edo halakorik ez dagoela.
- Udal erroldatik eratorritako Bizikidetzaren egiaztapena.

Nolanahi ere, tarifa honen onuraduna izango da ordenantza honetan araututako prezioak ordaindu behar dituen edo haren ezkontidea edo bizikidetzaren harreman analogoko pertsona, eta soil-soilik aplikatuko zaio familia unitatearen ohiko etxebizitzari.

Tarifa hau 12 hilabeteko aldi baterako ematen da. Ordaindu behar duen obligaziodunari prestazioa ematea aldi luzeago baterako ezarri den kasuetan, tarifa emateko epea egokitu egingo zaio prestazioa ematearen epeari. Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.k. edozein unetan, tarifa hau emateko eskatzen diren betebeharrak mantentzen direlako egiaztapena egin ahal izanen du, baldintzok betetzeari utzi edo egiaztapenean eskaturiko agiriari ekartzen ez dituzten onuradun guztiei tarifa osoa aplikatuko dielarik.

Ordenantza honetan arautzen diren prezioetarik edozeini dagokion kuota osoa era orokorrean aplikagarri den kuotari % 10 aplikatuz ateratzen dena bezainbestekoa izanen da, ordaindu behar duena Gobernuaren kanpoko erakundea denean, eta zerbitzua zuzenki egintza publikorakoa denean, irabazteko asmorik gabea, eta horren xedea bere asmoetarako laguntzak biltzea denean.

C. SORTZAILE HANDIAK:

Zerbitzuaren erabilzaileak bere eskura 1.000 litroko bi edukiontzi edo gehiago baldin badu, eta astean 6 bilketa, ondoan aipatzen diren urteko kuotak aplikatuko zaizkio (balio katastrala edozein delarik ere ezarriko direnak):

1.000 litroko 2 edukiontzi	2.729,10 €
Bitatik gora, 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko	2.019,58 €Unitatea

Edukiontzia beste edukiera batekoa bada (alboko bilketa egiteko edukiontziak), dagokion proportzio-kontua eginen da.

Bilketa era ez-jarraian egiten den kasuetan, -hots, H.H.S.-en bilketa astean sei eguneg egiten ez bada-, dagokion proportzio-kontua eginen da.

D. EDUKIONTZIEN ALDI BATERAKO ERABILPENEA

	EDUKIONTZIA JARRI/JASOTZEA	DESKARGA BAKOITZEKO
3.200 L-ko edukiontzia	96,73 €	38,70 €
2.400 L-ko edukiontzia	67,70 €	29,02 €
1.000 L-ko edukiontzia	27,08 €	12,57 €

240 L-ko edukiontzia	9,20 €	4,82 €
----------------------	--------	--------

120 L-ko edukiontzien uztea, 5,52€/eguneko fakturatuko da.

E. SORTZAILE HANDIAK TRINKOTU GABEKO KAXA HERTSIREN BILKETA

10 m3 arte	193,46€/unitate/bilketa eguna
5 m3 arte edo zatia	96,73€/unitate/bilketa eguna

F. KATASTRO BALIOZTAPENIK EZEAN

Higieziei balio katastralik atxiki ez zaien kasurako, koadro orokorreko jarduera multzoei dagozkien ondoko kuota aldakorrak ezarriak dira:

Kuota 1	32,89 €
Kuota 2	109,74 €
Kuota 3	329,08 €
Kuota 4	219,34 €
Kuota 5	219,34 €
Kuota 6	69,87 €
Kuota 7	32,98 €
Kuota 8	54,87 €
Kuota 9	109,74 €

G. TARIFA GUZTIEI DAGOZKIEN XEDAPENAK:

1. Hondakin unitate sortzaile bakarrean erabilpen mota batzuk sar daitezkeen kasuetan, katastro unitate nagusizat hartu denaren erabilpen kuota finkoa aplikatuko da. Nolanahi dela, Jatetxe, Festa Areto, Kafetegi Taberna, Hotel, Egoitza, Polikiroldegi, Kasino jardueretarako kuota finkoak kasu guztietan aplikatuko dira, hondakin unitate sortzaile bakar batean sarturik egon arren.

2. Iruñerriko Zerbitzuak, S.Ako ikuskatzaileek alde zuzenetik konprobatutakoan, tarifak, kuotak, erabilpena eta ordaintzaileak aldatu ahal izanen dira, hauek errealitateari egokitu ez edota erabilpen edo balio katastralik atxikirik ez duten kasuetan, konprobaturiko erabilpen erreala faktura dadineko moduan. Higiezinaren erabilpen aldaketa egiaztatuko balitz, moldaketa atzerako ondorioz egin liteke, erabilpen aldaketa ziurtatzen den momentutik alegia. **Era berean, ordaindu behar duen obligaziodunak, edozein kasutan, Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateari jakinarazi behar dio higiezinaren erabilpenarekin lotutako edozein aldaketa.**

3. Ezarpena dagozkien higiezinaren kasuan, baldin eta bilketa tokitik 300 metro baino urrutiago egon edota iristeko edo maniobra egiteko zailtasunik badago, Ikuskapen Zerbitzuek iritzia eman eta gero, aplikatuko den tarifa soilik kuotaren oinarriari dagozkion tarifa aldakorra izanen da. (I. Eranskina)

4. Erregimen orokorreko Gehieneko Kuota (6.1 art. 1 leerroalea) **2.729,10 €** izanen da.

H. H.H.S.T.Z.-KO HONDAKINEN TRATAMENDU ZERBITZUAREN ERABILPENA:

Lur isurketa:	6,41€Tm
Paper eta kartoi besterik ez duten hondakinen tratamendua:	8,02€Tm.
Plastiko estalki-ontziak besterik ez diren hondakinen tratamendua:	8,02€Tm.
Beira estalki-ontziak besterik ez diren hondakinen tratamendua:	8,02€Tm.
Metal hutsez osatutako hondakinen tratamendua:	8,02€Tm.
Egur hutsez osatutako hondakinen tratamendua:	25,25€Tm.
Aurrekoak ez diren hondakin onargarrien isurpena, eta bilketa berezitua duten toki-entitatetik heldu diren hondakinak:	43,84€Tm.
Erabiltutako pneumatikoak, diametroa 1.400 mm baino handiagoa dutenak	545,41€Tm.

I. HILDAKO ANIMALIEN JASOKETA, GARRAIOA ETA DEUSEZTAPENA: 109,08€/animalia

J. LURPEKO EDUKIONTZIAK

Urteko kostua honako formularen bitartez zehaztuko da kasu bakoitzean, plataforma jasotzaile bakoitzerako kalkulaturik:

$$\text{Kostua} = 185,01 \text{ €} (\text{Fv} + \text{Fe} + \text{Fc} + \text{Fp})$$

Fv: Maiztasuna, organikoa – gainerakoa frakzioaren asteko bilketa kopuruaz adierazia

Fe: Maiztasuna, bilgarri frakzioaren asteko bilketa kopuruaz adierazia

Fc: Maiztasuna, beira frakzioaren asteko bilketa kopuruaz adierazia

Fp: Maiztasuna, Paper-kartoi frakzioaren asteko bilketa kopuruaz adierazia

K. BILKETA PNEUMATIKOAREN ARLOAN MERKATARITZA HONDAKINAK UZTEKO TXARTELA

GALTZEA: 3,12 €/txartela

II E R A N S K I N A

UDALEZ UDALEKO KOEFIZIENTE ZUZENTZAILEA 4. ERABILPEN KODEARI (ETXE BIZITZA) APLIKAGARRIA

Adios	0,92
Ansoáin<>Antsoain.....	0,62
Añorbe	1,10
Anue	0,75
Aranguren	0,63
Atez	1,27
Barañáin	0,65
Basaburua	1,03
Belascoáin	1,93
Beriain	0,65
Berriplano<>Berriobeiti	0,63
Berriozar	0,61
Bidaurreta	1,53
Biurrún-Olcoz	0,89
Burlada<>Burlata	0,73
Ciriza<>Ziritza	1,34
Cizur	0,64
Echarri	1,60
Valle de Egüés<>Eguesibar	0,62
Enériz<>Eneritz	0,85
Esteribar	0,76
Ettxauri	0,93
Ezcabarte	0,68
Galar	0,79
Goñi	2,14
Guirguillano	2,50
Huarte<>Uharte	0,67
Imotz	1,00
Iza<>Itza	0,74
Juslapeña	1,19
Lantz	1,25
Legarda	0,93
Muruzábal	0,89
Noáin (Valle de Elorz)<>Noain (Elortzibar).....	0,63
Odieta	1,27
Oláibar	1,19
Cendea de Olza<>Oltza Zendea.....	0,70
Ollo	1,69
Orkoien	0,67
Pamplona<>Iruña	1,00
Tiebas-Muruarte de Reta	1,35
Tirapu	1,58
Ucar	0,85
Ultzama	0,91
Uterga	1,00
Villava<>Atarrabia.....	0,65
Zabalza<>Zabaltza	1,08
Zizur Mayor<>Zizur Nagusia	0,63

1 baino koefiziente zuzentzaile altuagorik ez da aplikatuko, baldin eta higiezinaren katastro balioa, 2015eko urtealdirako, 50.196,87 € baino altuagoa bada.

2015eko urtealdia bitartean baloratze-ponentzia berririk indarrean jarriko balitz, delako udalaren koefiziente zuzentzailea gutxitu beharko litzateke, katastro balioak gehitu izan litezkeeneko proportzioan.